Jaiak Ibarrekolandan

Testua: J.Mioma

Maiatzaren akabuan eta ekainaren hasieran egin izan dituzte azken hogeita hamar urteotan jaiak Ibarrekolandan. Agiri zaharretan arakatuz, bestelako ospakizunak aurkitu ditugu.

Jai finko gisa, duda barik Ibarrekolanda aldean urteetan gehien ospatu zena San Migelen omenez egindakoa izan zen. Arrazoia be sendoa zen, bertan baitzegoen goiangeruari eskainitako ermita. Egia esanda, baselizatxoak San Migelen eta San Bizenteren irudiak eduki zituen eta urte askotan bien izenak dantzatu zituen, Berrizko ermitak San Bartolome eta San Antolin santuekin egin zuen bezalaxe.

Ermita hura gaur egungo Sarrikoko fakultatearen alboan egon zen eta XIX. mendearen akabura arte iraun zuen zutunik. Deustuko udal idazkari Gaztañagak 1925ean idatzi zuenaren arabera, artean bere hondarrak han zeuden, Trauku baserritik hurrean.

Dudarik ez da, San Migel egunean ermita inguruan erromeria egin zuten deustuarrek urte askotan, baseliza guztiekin egin ohi zen bezalaxe. Eta auzi bati esker, badaukagu jai horren gaineko daturen bat edo beste. XIX. mendearen lehenengo hiru hamarkadetan XVIII. mendearen azken urteetan biztutako auzia hezurmamitu eta, azkenean, amatatu egin zen: Ibarra landa edo Ibarrekolanda, norena zen. PREST!en aspaldian kontatu genuenaren arabera, alde batetik Deustuko herriak -Udalak- eta bestetik landa ondoko baserri bietako ugazabek auzi luzeei eutsi zieten.

Auzi haren baitan, 1821ean Gaztañadui eta Ibarra baserrietako jabeek euren aldeko frogantzak egin zituzten, baina baita Ibarrako ugazabak salaketa paratu ere. Hona hemen bere kexa: "Con motivo de celebrarse la romeria de San Migel en aquel día se le antojó a dicho ayuntamiento hacer la función en dicho sitio y poniendose al frente de la casa de mi parte con todos los caracteres de un legítimo propietario autorizó el alcalde la fiesta que al son de tamboril fue celebrada".

Salaketa horretatik jakingarri politak atera ditzakegu. Lehenengo eta bat, San Migel egunean erromeria egiten zen. 1821ean Deustuko alkateak Ibarrekolandan egin nahi izan zuen, Ibarra baserriaren ondoan. Hori ez ei zen nor-



mala eta, egia esanda, Ibarra eta ermitaren artean tarte zabala zegoen, landa osoa besteak beste. Eta azkenik, erromeria txistulariarekin egiten zuten. Seguruenez, Deustuko Udalaren danbolinteroarekin.

www.berbaizu.org
egizu klik!



XIX. mendea. Dantzariak Elorrioko Udaletxearen aurrean. Aurreko orrian, andreak dantzan zuhaizti baten.

San Migel eguneko erromeria aspaldian galdu zen baina azkenaldion Ondalan konpartsak egun horretako jai giroa suspertu nahian erraldoiak atera izan ditu Ibarrekolandan.



Albokarekin

San Migel eguneko erromerian txistulariak agertu bazaizkigu, ez zen hura deustuarren jai egunetako musika tresna bakarra. Izan ere, 1676ko agiri baten arabera, albokaren soinuaz ere egiten zuten dantza.

Beste behin, auzi batek laga digu testigantza. 1676ko maiatzaren lehenengo domekan liskarra iziotu zen deustuar gazte biren artean Ibarrako zuhaiztian -"el arbolar de Ibarra"-. Domeka hartako arratsaldeko bostetan herriko neska-mutilak dantza egiteko elkartu ziren. Zehatzago esanda, lekukoen arabera, neskatilak dantzan ikustera joan ziren: Ibarran batu ziren "haver como danzaban unas muchachas al son de alboque que para el efecto tocaba un criado de este testigo". Hori Domingo Galbarriartuk kontatu zuen eta bere morroia ere Domingo zen, baina ez zuten albokariaren gaineko datu gehiagorik eman. Deustuan bizi zen, baina ez dirudi jatorriz deustuarra zenik.

Kalapita dantzari lotuta suertatu zen. Neskatilek dantzan zihardutenean, Santiago Urkitza bertara ailega eta Domingo albokariari esan zion "que la danza ynmediata le hiciese favor de tocar porque él quería traer la primera mano". Albokariak baietz baina hurrengo dantza hasi orduko Mateo Urkitza -ezizenez, Zeberio- agertu zen esanez berak dantzatu behar zuela lehenengo. Santiagok ez zuen onartu eta Mateok zuhaitz baten ondoan laga zuen ezpata hartu zuen "con mucha cólera". Gainerako gazteek kendu egin zioten baina ostera ere erasoa jo zuen Mateok Santiagoren kontra, lehenengo daga batez eta gero harri batez buruan joz.

Gazte bien arteko ezinikusia beste iturburu batetik zeriola pentsa genezakeen arren, pasadizoak dantza saioan 'aurresku' izatearen garrantzi soziala nabarmentzen digu. Bestaldetik, alboka artzain musika tresna ei zen baina gurean ezaguna izan zen. Abandon ere badira alboka erromerien notiziak.

Neska dantzari haietako baten izena ere gelditu zaigu: Agustina Intxaustegi. Eta maiatzaren lehen domeka hartako dantzaldiaren zergatiaz pista bat baino ez: egun hartan Elorriaga mendira soloak bedeinkatzeko prozesioa egiten zuten, Maiatzaren Gurutzearen gerizan. Hori bai, Ibarrakoak jai arautu bakoa ematen du, 'espontanoea', bertan ez baitzegoen herriko agintaririk. ■

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99